


# Bizkaiko Gardentasunari buruzko Foru Araua



**Erraz irakurtzeko edizioa**

Koordinazioa: Bizkaiko Foru Aldundia. Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila.

Modernizazio, Gobernamendu On eta Gardentasunerako Kabinetea

Irakurketa errazerako egokitzapena:

Blanca Mata (Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza)

Diseinua eta ilustrazioak: Mercedes Corretge



Logotipo honek identifikatzen ditu IFLAk (International Federation of Library Associations and Institutions) eta Inclusion Europe-k irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonen zuzendutako materialentzat ezarritako nazioarteko gidalerroak jarraitzen dituzten materialak. Agiri hau Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza-k berrikusi du, eta berak abalutzen du.

Lehenengo edizioa: 2016ko maiatza

© Bizkaiko Foru Aldundia-Diputación Foral de Bizkaia  
[www.bizkaia.eus](http://www.bizkaia.eus)

© Ilustrazioenak: M.Corretge

Lege-gordailua: BI-404-2016

# Bizkaiko Gardentasunari buruzko Foru Araua



**Erraz irakurtzeko** edizioa

# Aurkibidea




## SARRERA

Gardentasuna: zergatik da hain garrantzitsua?.....	7
- Erakundeentzat	
- Herritarrentzat	
- Berdintasuna Bizkaiko Foru Aldundian (BFA)	
Zein da arau honen helburua? .....	8
Zein dira arauaren printzipioak? .....	8
Nor dago behartuta arau hau betetzera?.....	9



## PUBLIKOTASUN AKTIBOA

Zer da publikotasun aktiboa? .....	11
Zer informazio mota egin behar da publiko? .....	11
-Informazio instituzionala	
-Informazio juridikoa	
-Ekonomiari buruzko informazioa	
-Kudeaketa publikoari buruzko informazioa	
-Politika sektorialeiei buruzko informazioa	
-Enplegu publikoari buruzko informazioa	
-Informazio orokorra	
Zein da informazioa jendarteratzeko tresna nagusia? .....	15



## INFORMAZIOA PUBLIKOA ESKATZEA


Zer da informazio publikoa? .....	19
Nork dauka informazio publikoa eskuratzeko eskubidea? .....	19

Informazio publikoa eskatzen eta eskuratzen duenaren eskubideak eta eginbeharrak ..... 19

Prozedura ..... 20

- Informazio-eskabidea
- Zein unitatek izapidetzen dituzten informazio-eskabideak
- Ebazpena. Erantzun motak
- Ematen den informazioaren ezaugarri orokorrak

Noiz ezin daiteke izan informaziorako irispiderik? ..... 21



## ORGANO ESKUDUNAK

Modernizazio, Gobernamendu On eta Gardentasunerako Kabinetea ..... 25

- Zer da?
- Eginkizunak

Erreklamazioen Batzordea ..... 26

- Zer da?



## BETETZE-BERMEAK

Arau-haustek ..... 29

Zehazpenak ..... 31

- Zein dira zehapen-prozeduraren urratsak?
- Nork ezar ditzake zehapenak?
- Zehapenak publiko egitea



## GARDENTASUNAREN SUSTAPENA ETA BULTZADA

Herritarren sentsibilizazioa ..... 35

Kultura- eta antolaketa-aldaketa ..... 35




# Sarrera

Irakurtzen ari zaren dokumentu hau Bizkaiko Batzar Nagusiek onarturiko gardentasunari buruzko Foru Arauaren bertsio bat da, «irakurketa erraza» deritzon moldean egina. Foru arau hori 2016ko apirilaren 23an sartu zen indarrean.

Arau hau oinarrizko zutabea da, bai Bizkaia eta bai Bizkaiko Foru Aldundia gardenak izan daitezten. Molde irakurterazean egokitu da, herritar guztiek irakur ahal izan dezaten.

6



Testua errazago ulertzeko, baliabide hauek daude dokumentu honetan:

- hitz batzuen definizioak, dagokien orrian bertan
- ① termino batzuei buruzko azalpenak, 16. eta 17. orrialdeetan



## Gardentasuna: zergatik da hain garrantzitsua?

### Erakundeentzat

Erakundeak gardenak direnean, sendoagoak eta demokratikoagoak dira.

Erakundeen gardentasunak kontrol-sistemak hobetzeko modua ematen du, bai eta herritarrei kontu emateko ere.

Garapen ekonomikorako tresna bat ere bada, hau da, administrazioaren egiturak hobetzeko, izapideak gutxitzeko eta aberastasuna sortzeko. Gardentasunak gobernu ireki bat sustatzen du, herritarren arazoak eta kezkek arretaz entzuten dituen gobernu bat.

Gardentasunaren kultura bati esker, hainbat arlo hobetuko dira:

- erabakiak hartzea
- administrazio-prozedurak
- lan egiteko modua
- antolaketaren eraginkortasuna eta efizientzia

### Herritarrentzat

Erakundeak gardenak badira, herritarrek konfiantza handiagoa dute haiengan.

Gardentasunari esker, herritarrek modua izaten dute:

- erabakiak hartzerakoan parte hartzeko
- erakundeen gaineko kontrol egiazkoagoa izateko
- kalitatezko informazioa jasotzeko: informazio eguneratua, eskuragarria, argia eta erraza



## ■ Berdintasuna Bizkaiko Foru Aldundian (BFA)

Foru arau honen bitartez gardentasuna arautzeak sendotu egiten du BFAk 2005ean abiarazitako lan-ildo bat.

Gainera, gardentasunaren aldeko apustu hau erronka handia da: antolakuntza-kulturaren aldaketa bat.

Foru arau honen bitartez gardentasuna arautuz, herritarrek modua izango dute hobeto jakiteko:

- zer egiten duen Bizkaiko Foru Aldundiak
- nola betetzen dituen bere eginkizunak
- nola erabiltzen dituen baliabide publikoak

## Zein da arau honen helburua?

Gardentasuna bermatzea bai Bizkaiko Foru Aldundian bai gure lurraldeko **foru sektore publikoko erakundeetan**.

Horretarako, arau honek publikotasun aktiboaren kontzeptua arautzen du, erakundeen eginbehar legez, bai eta informazio publikorako irispidea ere, herritarren eskubide legez.

**Foru-sektore publikoko erakundeak:** Zuzenbide publikoko foru erakundeak. Hainbat forma juridikotakoak izan daitezke: organismo autonomoa, enpresa-erakunde publikoa, merkataritza-sozietatea, fundazioa edo partzuergoa.






## Zein dira arauaren printzipioak?

- Publikatzen den informazioak egiazkoa eta zehatza izan behar du.
- Arauaren mendeko erakundeek bertan ezartzen dena bete beharko dute
- Publikatzen den informazioak baliagarria izan behar du
- Publikatzen den informazioak soila eta herritarrentzako ulergarria izan behar du
- Informazioa eskuratzeak doakoa izan behar du, jatorrizko dokumentuak ez diren kopia eta euskarrien kasuan izan ezik





## Nor dago behartuta arau hau betetzera?





# Publikotasun aktiboa





## Zer da publikotasun aktiboa?

Foru Administrazio Publikoak, inork eskatu gabe, nahitaez publikatu behar du bere jarduerari buruzko informazio garrantzitsua, herritarrei haren kontu emateko.

Horrek esan nahi du konpromisoa daukala informazio eguneratua batu eta aldian-aldian jendarteratzeko, eta badituela, horretarako, gutxieneko eginbehar batzuk.

Hiru urterik behin, gardentasun plan nagusi bat onartuko da, bertan finkatzeko zer helburu bete behar dituzten Aldundiak eta foru erakundeek.

## Zer informazio mota egin behar da publiko?

### Informazio instituzionala

Foru Aldundiaren eta erakunde publiko foralen funtzionamenduari eta antolamenduari buruzko informazioa. Halako informazioa urtean behin berrikusi behar da gutxienez.

#### 1. Antolaketa

- antolaketa-arauak
- organigrama eta eginkizunak
- egin beharreko planak eta programak (beren helburu eta emaitzekin)

#### 2. Goi-karguak<sup>①</sup>

- goi-karguetan dauden pertsonak (ibilbidea eta urteko lansaria)
- ekitaldi publikoen agenda
- **ondasun eta jardueren gaineko urteko aitorpena**

#### 3. Pertsonala<sup>②</sup>

- aldi bateko lanpostuen zerrenda
- **bateragarritasuna** onarturik duten

#### **Ondasun eta jardueren gaineko urteko aitorpena:**

Kargu publiko baten egoera ekonomikoari (etxebizitzak, maileguak, aseguruak...) eta jardueri (profesionala) buruzko informazioa.

Urtero aurkeztu behar du informazio hori, nahitaez.

#### **Bateragarritasuna:**

Erakundearentzat egiten denaz gainera, ea baden edo ez den aukerarik beste jarduera profesional bat egiteko.



## Informazio juridikoa

### 1. Araudia

- Foru arauen aurreproiektuak<sup>③</sup> (onartu aurretik)
- Arau-xedapen orokorren proiektuak<sup>④</sup> (onartu aurretik)
- Arauak onartzeko beharrezkoak diren memoriak eta txostenak
- Indarrean dagoen araudi aplikagarria (jada onartuak)

### 2. Bestelako informazio garrantzitsua

- Kontsulta-organoen txostenak<sup>⑤</sup>
- Administrazio-ebazpenak eta ebazpen judizialak
- Administrazio-ebazpenak eta ebazpen judizialak<sup>⑥</sup>
- Izapidetze-aldian zehar publiko izan behar duten dokumentuak
- Jarraibideak, instrukzioak, erabakiak edo kontsultei emaniko erantzunak

## Ekonomiari eta finantzei buruzko informazioa

12

Aldundiaren egoera ekonomikoari buruzko informazioa.

Zer diru-sarrera dagoen, zenbat gastatzen den eta zertan gastatzen den.

### 1. Aurrekontuak

- beren partida nagusiekin
- 3 hilerik behin eguneratua

### 2. Kontabilitate-egoera

- **Defizit-helburua, zor publikoa eta gastu-araua**

**Defizit-helburua:** Aldundiak denbora jakin batean bete beharreko defizit-portzentajea (egiten diren gastuen eta jasotzen diren diru-sarreraren arteko diferentzia).

**Zor publikoa:** Erakundeak partikularrei edo beste erakunde batzuei zor dien diru-kopurua.

**Gastu-araua:** Legez ematen da, eta gastu-muga bat ezartzen du, hau da, erakunde batek bere gastuetan gainditu ezin duen muga, aurrekontu-egonkortasuna egon dadin.



- **Urteko kontuak eta kontuen epaitegien auditoretza**-txostenak
- Inbertsioetan eginiko gastu publikoa

### 3. Tributazioa

- **Tributu itunduen** diru-sarrera fiskalak
- Bizkaiko udalerrri bakoitzak jasotzen duen diru-kopurua

### 4. Beste batzuk

- Hornitzaileei ordaintzeko epeak

## ■ Kudeaketa publikoari buruzko informazioa

Diru publikoa nola kudeatzen den azaltzen duena.

### 1. Formalizatutako kontratuak

- Kontratu ez-txikiak: xedea, iraupena, zenbatekoak, adjudikazioduna, parte-hartzaileak...
- Kontratu txikiak <sup>⑦</sup>: arlo bakoitzari dagokion zenbatekoa (adibidez, obrak, zerbitzuak, hornidura...) 3 hilerik behin gehitua
- Informazio estatistikoa: zenbaterainokoak diren prozedura bakoitzaren bitartez formalizatutako kontratuak.
- 6 hilerik behin eman behar da informazio hori
- Kontratazio-organismoari buruzko informazio zehatza <sup>⑧</sup>

### 2. Beste informazio batzuk

- Beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin sinatzen diren hitzarmenak
- **Kudeaketa-gomendioak** eta azpikontratazioak
- Emaniko diru-laguntzak: onuraduna, zenbatekoa, xedea, kontrolak...
- Espedienteak izapidetzeko prozedura elektronikoak eta beste gestio administratibo batzuk

**Urteko kontuak:** Erakundeek erabiltzen dituzten txostenak, jakinarazteko zein den ekonomia-eta finantza-egoera data edo aldi jakin batean

**Kontuen epaitegien auditoretza-txostenak:** Azterketa kritiko eta sistematiko bat da, erakundeek kontu publikoari buruzko auziez arduratzen diren epaitegiek egiten duena. EAEn, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiten du.

**Tributu itunduak:** Estatu espainiarraren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Ekonomia Itunaren hitzarmenaren mendeko zergak dira.



## ■ Politika sektorialeiei buruzko informazioa

Foru Aldundiko sailek eta foru-erakundeek egiten dituzten jarduketei buruzko informazioa da.

Modu argi, eskuraerraz eta grafiko batean publikatu behar da.

1. Helburu zehatzak dituzten programak eta planak.
2. Herritarrei ematen zaizkien zerbitzuen gutuna. <sup>9</sup>
3. Zerbitzu-eskaintza. <sup>10</sup>
4. Zerbitzua ematen duen erakundearen izena, ordutegiak, prezioak...

## ■ Enplegu publikoari buruzko informazioa

Foru Aldundian eta erakunde foraletan lan egiten duten pertsonen eta erakundeotako lanpostuei buruzko informazioa da.

1. Pertsonalaren egitura eta araubide juridikoa.
2. Lanpostu-zerrenda: eginkizunak eta ordainsariak.
3. Bateragarritasuna onartua duten enplegatu publikoen zerrenda.
4. Enplegu publikoaren eskaintzak: deialdiak eta hautaketa-prozesuak.
5. Lanpostuak hornitzeko sistemak: deialdiak eta adjudikazioak.
6. Pertsonalarentzako prestakuntza-programak.
7. Giza baliabideen planak.
8. Ordezkaritza sindikala: sindikatuak, ordu sindikalak eta **langile liberatuak**.

---

**Langile liberatuak:** Lan-arloko legeriaren arabera, beren lan-denboraren zati bat sindikatuko eginbeharrak betetzen ematen dutenak, hau da, langileen ordezkaritzan dihardutenak.



## ■ Informazio orokorra

1. Bizkaiko herritarrentzat interesgarria izan daitekeena, hala nola zergak, lurraldearen mapak, gizarte-zerbitzuei buruzko informazioa, kultura edo Foru Aldundiaren beste edozein eskumen-eremutakoa.
2. Zerbitzu publikoetarako irispidea: baldintzak, ordutegiak, itxarote-zerrendak, gogobetetze-inkestak.
3. Herritarrentzako laguntza eta parte-hartze zerbitzuak: kexak, erreklamazioak.
4. Herritarrek gehien eskatzen duten informazioa.

## **Zein da informazioa jendarteratzeko tresna nagusia?**


### ■ Foru Aldundiaren Gardentasunaren Ataria

Herritarrek errazago eskura dezaten informazio publikoa, Foru Aldundiak Gardentasunaren Ataria sortu du. Foru arau honen mendeko erakundeekin zerikusia duen informazio guztia biltzen duen web-atari bat da.

Gardentasunaren Ataria Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren ardurapean dago, Modernizazio, Gobernamendu On eta Gardentasunerako Kabinetearen bitartez.

Bai Gardentasunaren Atariak, bai foru-erakundeen web-orriek, gune batzuk izango dituzte beren-beregi egokituak:

- herritarren beharrianak identifikatzeko eta entzuteko
- herritarren eta arduradun foralen arteko harremana ahalbidetzeko
- foru-zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeko



## Informazio instituzionala

0

### **Batzar Nagusiak:**

Legegintza-organu bat da (legeak egiten ditu), Euskal Herriko lurralde historikoetariko bakoitzean dagoena. Bizkaiko Batzar Nagusien egoitza Gernikan dago.

1

### **Goi-karguak:**

Foru Aldundiko eta foru-erakunde publikoetako goi-zuzendaritzako langileak. (Diputatuak, Zuzendariak, Gerenteak).

2

### **Langileak:**

Foru Aldundiko eta foru-erakunde publikoetako enplegatuak, goi-kargu ez direnak.



## Informazio juridikoa

16

3

### **Foru-arauen aurreproiektuak:**

Foru-arauak Batzar Nagusien osoko bilkuran onartzen dira. Lehenengo idatzaldia aruaren aurreproiektua izaten da, eta Gobernu Kontseiluan eztabaidatu edo aztertzen da. Bigarren idatzaldia aruaren proiektua izaten da, eta Batzar Nagusietan eztabaidatu edo aztertzen da.

4

### **Arau-xedapen orokorren proiektuak:**

Ondorio orokorrak eta iraunkorrak dituzten arauen lehen idatzaldiak dira, Gobernu Kontseiluak onartu aurrekoak; alegia, ez dira pertsona jakin batzuei zuzenduriko arauak, eta hainbat alditan aplikatzekoak izaten dira.

5

### **Kontsulta-organoen txostenak:**


Aldundiak laguntzarako eta kontsultarako sortzen dituen organoek prestatutako dokumentuak dira.

6

### **Gobernu Kontseilua:**


Organo exekutibo bat da (bere gain hartzen dituen Bizkaiko gobernua eta administrazioa).





## Kudeaketa publikoari buruzko informazioa

- ⑦ **Kontratu txikiak:**  
18.000 euro baino gutxiagoko kontratuak (BEZik gabe).
- ⑧ **Kontratazio-organoak**  
Sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateak, beren izenean kontratuak egin ditzaketenak.




## Politika sektorialeiei buruzko informazioa

- ⑨ **Zerbitzu-eskaintza:**  
herritarren esku jartzen diren zerbitzuen edo prestazioen zerrenda.
- ⑩ **Zerbitzu-gutuna:**  
honako alderdi hauek azaltzen dituen dokumentu bat da:
  - zein zerbitzu eskaintzen den, zer ezaugarri duten zerbitzuok eta nola ematen diren.
  - zer kalitate-mailarekin eta -estandarrekin ematen diren zerbitzuok.
  - nola kontsultatu ditzaketen herritarrek zerbitzuak, edo nola egin iradokizunak edo eman iritzia zerbitzuok hobetzeko.
  - zein den konpromisoak ebaluatzeko sistema.

Kanpo-erakunde batek auditatuko du zerbitzu-gutuna.



# Informazio publikoa eskatzea





## Zer da informazio publikoa?

Arau honen mendeko erakundeek duten informazioa da, beren zereginak egiteko prestatua, aldatua edo eskuratua.

## Nork dauka informazio publikoa eskuratzeko eskubidea?

Erakunde horiei buruzko informazioa jakin eta eskuratu nahi duen herritar orok. Ez da beharrezkoa justifikatzea zertarako eskatzen den informazioa. Informaziorako irispide-prozedurek ahalik eta baldintza gutxien izan behar dute, errazak izan behar dute eta ebazpen bizkorrekoak.

Kasu bitan bakarrik ukatuko da informazioa eskuratzea: interes publikoarentzako kaltegarria izan daitekeenean edo datuen babeserako eskubidea urra daitekeenean.

## Informazio publikoa eskatzen eta eskuratzen duenaren eskubideak eta eginbeharrak

Informazioa eskatzen duten herritarrek honako eskubide hauek dituzte:

1. Beren eskubideak zein diren jakitea eta haien gaineko aholkuak jasotzea.
2. Informazioa dagokion epean jasotzea, eta, posible bada, haiek eskatu duten formatuan
3. Informaziorako irispidea ukatzen bazaie, horren arrazoia zein den jakitea.
4. Kostu bat duten formatuen prezioa zein den jakitea.
5. Informazio publikoa baimenik izan gabe erabili ahal izatea.

Informazio publikoa eskuratzen duten herritarrek honako eginbehar hauek izango dituzte:

1. Informazio-eskaera modu zehatz batean egitea.
2. Fede onean jardutea eta ez egitea gehiegizko eskaerarik.
3. Informazioaren berrerabilpenari buruzko legeria errespetatzea.
4. Ebazpenean ezartzen diren irispide-baldintzak betetzea, halakorik ezartzen bada.



## Prozedura

### ■ Informazio-eskabidea

Eskabideak inprimaki elektronikoen bitartez egin daitezke, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gardentasunaren Atarian edo foru-erakundeen web-orrietan.

Paperean edo ahoz ere aurkez daitezke eskabideak, aurrez ezartzen diren Erregistroa eta Herritarrenganako Laguntza Bideratzeko Bulegoetan.

Eskabideak aurkeztean, gutxieneko azalpen bat eman beharko da, zer eta zergatik eskatzen den azalduz. Euskaraz zein gaztelaniaz aurkez daitezke eskabideak.

### ■ Zein unitatek izapidetzen dituzten informazio-eskabideak

Arauz ezartzen ez den bitartean zein diren arloko unitate eskudunak, BFAko sailletako zerbitzu orokorreari eta foru-erakundeetako zuzendaritza-organoei dagokie informazio-eskabideen izapideak egitea. Haiiek guztiek Modernizazio, Gobernamentu On eta Gardentasunerako Kabineteari jakinarazi beharko dizkiete hala informazio-eskabideak nola erantzunak.

### ■ Ebazpena. Erantzun motak

Behin eskabidea eginda, erakunde eskudunak eskaera onartzeko edo ukatzeko erantzuna eman beharko du 15 eguneko epean (beste 15 egunez luzatzeko aukerarekin).

Salbuespen gisa, beste 15 egunez luza liteke epe hori (guztira hilabete eta erdi izateraino), baldin eta eskaera jaso duen organoak hala egin dezan eskatu badio Erreklamazioen Batzordeari, eta hark onartu.

Inolako erantzunik jasotzen ez bada, horrek esan nahiko du ukatu egin dela informaziorako irispidea.



Bi eratakoa izan daiteke erantzuna:

1. Onartzea eskatutako informaziorako irispidea.
2. Ukatzea eskatutako informaziorako irispidea.

Halakoetan, honako errekurtsio hau aurkezteko aukera izango du:

- Errekurtsio bat Erreklamazioen Batzordeari.  
Aurkezteko epea: hilabete 1.  
Erantzuteko epea: 3 hilabete.

- **Aukerako berraztertze-errekurtsioa**

- **Administrazioarekiko auzien epaitegiaren aurrean aurkaratzea**

### ■ Ematen den informazioaren ezaugarri orokorrak:

1. Formatu digitalean.
2. Doakoa.  
Informazioa eskuratzeak doakoa izan behar du, jatorrizko dokumentuak ez diren kopiak edo euskarriak emateagatik ezarri ahal diren tasak edo prezio publikoak kenduta.
3. Eskaturiko informazioa jada eskura badago Gardentasunaren Atarian edo beste web-orriren batean, hura nola eskuratu jakinaraziko da.

### **Aukerako berraztertze-**

**errekurtsioa:** Administrazio Publikoaren erabakiak errekurritzeko erabil dezakete tresna hau herritarrek. Administrazio-egintza bat hura eman zuen organo berak berrikusteko aukera ematen du, baldin eta egintza horrek administrazio-bidea amaitzen badu.

### **Administrazioarekiko auzien epaitegiaren aurrean**

**aurkaratzea:** Honen bidez, alderdi interesdunak aukera dauka bere ustez zuzenak ez diren ebazpenak auzibidean errekurritzeko.

## **Noiz ezin daiteke izan informaziorako irispiderik?**

### ■ Eskabideak ez onartzeko arrazoiak

1. Eskatutako informazioa prestatzeko edo publikatzeko prozesuan dagoenean.
2. Informazioa instrumentala edo laguntza gisakoa denean (oharrak, zirriborroak, barne-komunikazioak...)
3. Eman aurretik prestaketa-prozesu bat behar duenean.
4. Eskabidea jaso duen organoak ez daukanean informazioa eskura.
5. Eskaera bat errepikakorra edo abusuzkoa denean, edo gehiegizko kostua duenean.



## ■ Legedi orokorrean aurreikusitako mugak

Informazio bat jasotzea ukatu ahal izango da, egiaztaturik informazio hori kaltegarria izan daitekeela honako arlo hauetarikoren batean:

1. Segurtasun publikoa.
2. **Ez-zilegi penalen** edo arau-hauste larri, edo oso larrien prebentzioa, ikerketa eta zehapena.
3. Administrazioaren zaintza-, ikuskapen- eta kontrol-eginkizunak.
4. Lanbide-sekretua eta jabetza intelektual eta industrialak.
5. Isilpekotasunaren bermea edo sekretua.
6. Ingurumenaren babesa.
7. Interes ekonomikoak eta merkataritzakoak.
8. Merkataritzako eta industriako datuen isilpekotasuna.
9. Alderdien berdintasuna prozesu judizialean.
10. Pertsonen bizitza pribatua.
11. Adingabeen babesa.

---

**Ez-zilegi penalen:** Arau bat, lege bat, ordenantza bat edo araudi bat hausten duenaren egintza.

## ■ Datu pertsonalen babesa


Informazioa ukatu ahal izango da datu pertsonalak ukitzen direla ikusten bada edo nahitaezkoa bada ohorerako eskubidea, intimitaterako eskubidea edo nork bere irudia izateko eskubidea gordetzea.

Babes berezia duten datuen kasuan, indarreko legeriaren arabera jokatuko da.

Babes berezirik ez duten datuen kasuan, datu pertsonalak **bereizi** egin beharko dira.


---

**Bereizketa:** Batuta dagoen zerbait banatzea; kasu honetan, datu pertsonalak jaso gabe ematea informazio bat.





# Organo eskudunak







## Modernizazio, Gobernamendu On eta Gardentasunerako Kabinetea

### Zer da?

BFAren gardentasun-politika diseinatzeko, koordinatzeko eta gauzatzeko duen organoa da. Herri Administrazioerako eta Erakunde Harremanetarako Sailean txertaturik dago.

### Eginkizunak

1. Gardentasun-politika eta haren proiektuak diseinatzea.
2. Gardentasunaren Ataria eta web-orriak:
  - bultzatu eta zuzendu
  - edukien jarraipena egin
3. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea:
  - diseinatu, koordinatu, jarraipena egitea eta kontrolatzea (protokoloak, epeak betetzea...)
4. Kotsultak jaso eta ebaztea. Txostenak ematea.
5. Urteko Memoria prestatzea:
  - gardentasun-politiken barne-ebaluazioa
6. Instituzio-harremanak garatzea gardentasunaren arloan.
7. Entzumen aktiboa eta elkarlaneko gardentasuna sustatzea.
8. Nazioarteko gardentasun-politiken jarraipena egitea.
9. Zehapen-espeditentak **abiarazteko** proposamena egitea Erreklamazioen Batzordeari.



## Erreklamazioen Batzordea

### Zer da?

**Kide anitzeko organo** independente bat da, goraxeago aipatzen den Kabineteari atxikia, baina bakarrik aurrekontuei eta baliabide materialei dagokien aldetik.

Laguntza teknikoa eta juridikoa emango diote bai Kabineteak bai Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak nola Foru Administrazioaren Zerbitzu Juridikoek.

Foru dekretu baten bitartez garatuko dira batzordearen antolaketa-, prozedura- eta funtzionamendu-arauak.





**Kide anitzeko organoa:** Sektore profesional bereko zenbait kide osaturiko organoa da, eta beren eskumeneko gaiei buruzko gaiak hartzeko biltzen dira, haien gain agintaritza eta ezagutza dutelarik.

### Eginkizunak

1. Erreklamazioak ebatzea, informazio publikorako irispide-eskubidea ukatzen denean.
2. Arduradun publiko eskudunei eskatzea diziplina-espedienteak abiarazteko.
3. Bere jardueren urteko memoria bat prestatzea. Batzar Nagusietan aurkeztatzeko.
4. Beste organo batzuekin elkarlanean jardutea gardentasuna sustatzen.

26

### Osaera

Kideak	Arduraldia	Izendapena	Argitaratzea
 <ul style="list-style-type: none"> <li>• 3 karrerako funtzionarioak izendapen askeko postu batean ez daudenak</li> <li>• 5 urteko esperientzia A1 mailako kidegoetan edo sailkapen-eskalan</li> </ul>	 <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez-esklusiboa. beren lanpostuarekin bateragarria</li> </ul>	 <ul style="list-style-type: none"> <li>• Foru Aldundia</li> </ul>	 <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gardentasunaren Ataria</li> </ul>





# Betetze-bermeak





## Arau-hausteak

Gardentasuna publikotasun aktiboaren eta informazio-eskabideen bitartez bermatzen da.

Horren erantzukizuna **Administrazioko goi-kargudun eta langileentzat** dagokie.

Arduradun publikoek eginbehar horiei erantzun ezean, herritarrek Erreklamazioen Batzordearen aurrean sala dezakete, eta hark dagokion organoari eskatuko dio bere eginbeharra betetzeko. Hala ere, arduradun publikoek ez badute errekerimendua aintzat hartzen, Batzordeak aukera izango du arloan eskudun den organoari eskatzeko diziplina-espediente bat abiaraz dezan.

		Noiz
Oso larriak	• Publikotasun aktiboari eta datuak zabaltzeari buruzko eginbeharrak ez betetzea, Batzorderen errekerimendua jaso ondoren	3 aldiz, 2 urtean
	• Batzordearen ebazpenak ez betetzea	3 aldiz, 2 urtean
Larriak	• Ez publikatzea publikotasun aktiboari eta datuen zabalkundeari buruz eskaturiko informazioa	2 aldiz, 1 urtean
	• Batzordearen ebazpenak ez betetzea	2 aldiz, 2 urtean
	• Batzordeari aurkezten zaizkion ebazpenen izapideak egiten laguntzeari uko egitea	2 aldiz, 1 urtean
	• Ez ebaztea epearen barruan informazioa jasotzeko eskabide bat	2 aldiz, 1 urtean
	• Informazio faltsua ematea	beti
Arinak	• Publikotasun aktiboari eta datuak zabaltzeari buruzko eginbeharrak ez betetzea	beti
	• Epearen barruan informazio publikoa jasotzeko eskabide bat ez ebaztea	beti



Foru arau honen mende dauden eta informazioa emateaz arduratzen diren **pertsonei edo erakundeei** dagokien aldetik, honako hauek izango dira arau-hausteak:

		Noiz
Oso larriak	• Publikotasun aktiboari eta datuak zabaltzeari buruzko eginbeharrak ez betetzea, Batzorderen errekerimendua	3 aldiz, 2 urtean
	• Arau-hauste larrietan berrerrortzea	1 aldiz, 1 urtean
Larriak	• Arau-hauste arinetan berrerrortzea	1 aldiz, 1 urtean
	• Ez erantzutea informazio-eskaera bati	beti
	• Informazio faltsua ematea	beti
Arinak	○ Informazioa ematen atzeratzea justifikaziorik gabe	beti
	○ Informazio osatugabea ematea edo hura eskatuz denaz bestera ematea	beti
	○ Informazioa ematean, ez betetzea arau honetan ezartzen dena	beti



## Zehapenak

### ■ Zein dira zehapen-prozeduraren urratsak?

Eskumena duen organoak ofizioz hasiko du prozedura:  
bere kabuz, goragokoen aginduz,  
beste organo batzuen eskariz edo partikular baten salaketa bidez.

Erreklamazioen Batzordeak egiaztatzen duenean badela arau-hauste bat,  
prozedura abiaraz dezan eskatuko dio eskudun organoari.

Organo hori beharturik dago prozedura abiaraztera  
eta haren emaitza Foru Aldundiari komunikatzera.

Erantzulea kargu publiko foral bat denean,  
interes-gatazkei buruzko foru-araudiaren arabera jokatu da.  
Erantzulea Foru Aldundiko edo foru-sektore publikoko langileren bat denean,  
enplegu publikoari dagokion araudiaren arabera jokatu da. (35. art.)

Erantzuleak subjektu pribatuak edo erakundeak direnean,  
administrazio-prozedura erkidearen legediaren arabera jokatu da.

31

### ■ Nork ezar ditzake zehapenak?

Arau-haustea nork egiten duen,  
bati edo besteri dagokio zehapenak ezartzeko ahala:

1. Foru Aldundiko kargu publikoak edo parekoak.
  - Arau-hauste arinak eta larriak —————• haien saileko titularra
  - Arau-hauste oso larriak —————• Foru Aldundia
2. Foru-sektore publikoko gainerako erakundeetako zuzendaritza karguak.
  - kasuan kasuko barne-araudiaren arabera
3. Informazioa ematera beharturik dauden erakunde pribatuak.
  - diru-laguntzak edo bestelako laguntzak jasotzeagatik
  - sektore publikoarekin kontratuak edo hitzarmenak izateagatik
  - Diru-laguntza edo laguntza eman / kontratua edo hitzarmena sinatu duen saileko titularra
4. Pertsona fisikoak edo juridikoak,  
Administrazioari informazioa ematera behartuak
  - informazioa jaso behar duen saileko titularra



## ■ Zehapenak publiko egitea

Arau-hauste oso larrien edo larrien ondoriozko zehapenak Gardentasunaren Atarian edo dagokien web-orrietan publikatuko dira. Zenbait kasutan, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean ere publikatuko dira.







# Gardentasunaren sustapena eta bultzada





## Herritarren sentsibilizazioa

Herritarrak informazio publikorako irispidearen arloan dituzten eskubideez sentsibilizatzeko, Foru Aldundiak honako jarduera hauek egingo ditu Bizkai osoan zehar:

1. Gardentasunari eta parte-hartzeari buruzko azalpen-gida bat.
2. Sentsibilizazio-kanpainak, honako helburu hauekin:
  - informazioa eskuratzea errazagoa izan dadila herritar guztientzat
  - internet erabiltzeko mugak dituzten kolektiboen diskriminazio digitala saiheste

## Kultura- eta antolaketa-aldaketa

Foru Aldundia den moduko erakunde publiko batentzat, gardentasun-politika bat garatzeak kultura-aldaketa bat egitea eskatzen du, hala antolatzeko, lan egiteko nola erabakiak hartzeko moduan.

Horretarako, Aldundiak eta foru-erakundeek honako ekintza hauek sustatuko dituzte, apurka-apurka:

- beren antolaketa-egiturei gardentasun-helburuak betetzeko modua emango dieten programak
- beren langileei gardentasunaren arloko prestakuntza eskaintzeko programak



**Bizkaia**

foru aldundia  
diputación foral

